


Abiadura hipersonikoko hegaldiak luzatu nahian

ABUZTUAREN 14AN NASAK egindako saiakerak huts egin zuen. X-51A WaveRider gailu hipersonikoak, hamabost kilometroko altueran hegal eginez, orduko 7.000 kilometroko abiadura lortu behar zuen bost minutuz, baina 31. segundoa hegal baten funtzionamendua akatsak porrota eragin zuen.

Maila horietako abiadurak Mach zenbakia erabiliz neurtzen da. Mach 1 soinuak airean eta hamabost graduko tenperaturan duen abiadura da: 1.224 kilometro orduko. Mach 1etik gorako abiadurari supersoniko deritze, eta Mach 5etik gorakoei hipersoniko. Une honetan, abiadura errekorra NASAREN X-43 gailuak du; Mach 9,6ko abiadurari eustea lortu zuen hamar segundoz. Abuztuko saiakeran ez zuten abiadura errekorrik hautsi nahi, baina bai abiadura hipersonikoan luzeen iraun duen bidaiarena. Abioigintzako enpresa ugari interesa du abiadura hipersonikoetan, batez ere bidaiak luzeen iraupena murrizteko; X-51A gailuaren abiaduran bidaiatuz gero Paris-New York ibilbidea ordubetean egin liteke, eta Paris-Tokio bi ordutan. ■



AIR.BLASTMAGAZINE.COM



Uste baino urre eta zilar gehiago zabor elektronikoan



VLIBERAL.COM

URTERO, PCak, telefono mugikorak, tabletak eta beste gailu elektroniko eta elektrikoak ekoizteko 320 tona urre eta 7.500 tona zilar erabiltzen dira. 16.000 milioi euro xahutzen dira urtero aipatu metalen kudeaketan, eta gutxi gorabehera antzeko kopurua joaten da zabortegetara gailuekin batera.

Zabortegetan, gezurra badirudi ere, meategietan ustiatzen diren metalen gordailuak baino 50 aldiz aberatsagoak daude. Gauden krisi egoeran, eta metal horien salneurriak kontuan hartuz, negozio itzela izan daiteke zabortegei elektronikoetatik urrea eta zilarra ateratzea. Horrezaz gain, ez da ahaztu behar birziklapenak gure ekosistemarako duen garrantzia. ■



Marteko irudiak Interneten ikusgai

Abuztuaren 6an *Curiosity* zunda Marteko Gale kraterrean pausatu zen eta handik irudiak eta informazioa bidaltzen ari da. Bereizmen handian hartutako irudietako batzuk, publikoak izateko NASAK baimena eman ondoren, beheko helbidean ikus ditzakezue.

ttiki.com/41779
(Frantsesez)

Izar gazte baten portaera berezia

Guregandik 1.300 argi-urtera dagoen V1647 Orionis izarrak gure eguzkiak baino bost aldiz tamaina handiagoa du, nahiz eta dentsitatea askoz ere txikiagoa izan. Osatzen ari den izar horrek 2004 eta 2006 urteen artean argitasuna emititu zuen, 2008ra arte ilun geratu zen, eta handik aurrera berriro argitsu dabil. Zientzialarien jakin-mina eragin du portaera horrek.

ttiki.com/41780
(Gaztelaniaz)

Gizen sentitu eta gizendu

Bere burua gizentzat jotzen duten nerabeek, helduak izatean, gizen izateko aukera gehiago dute besteek baino. Horixe izan da *Journal of Obesity* aldizkarian argitaratu emandako ikerketa baten emaitza. Azterketa ikerlari norvegiarrek zuzendu dute, eta ia 1.200 gazte parte hartu dute.

ttiki.com/41781
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16